

Ingurumen Buletina

- 1. Gipuzkoako erraustegi berriaren inguruko datu berriak***
- 2. Olaztiko zementeran ezingo dute hondakinik erre***
- 3. Mugikortasun iraunkorra bultzatzeko proposamena Nafarroako Parlamentuan***
- 4. "Austeritatearen kontra eta justizia klimatikoaren aldeko borrokak nola lotu?" (Asbjørn Wahl)***

1. Gipuzkoako erraustegi berriaren inguruko datu berriak

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu berri du Gipuzkoan hondakinak kudeatzeko azpiegituren txostena. Bertan 2020tik 2045era hondakinek izango duten bilakaera aztertu da, baita bilakaera ekonomikoa eta demografikoa ere. Datu hauek oinarri hartuta, erraustegi berriaren hurrengo 30 urteetan urtero 163.400 tona hondakin erreko direla kalkulatu da.

Eman diren datuen artean sortuko den errefusarena dago (birziklatu ezin den zatia). 2014tik 2030era errefus kantitateak 20.000 tona egingo du behera. 2030ean birziklapen tasa %60koa balitz 156.719 tona errefus sortuko lirateke, eta %70koa balitz 140.325 tona errefus izango lirateke sortutakoak. Aurreikuspenaren arabera ordea 2030etik 2045era gora egingo du errefus kantitateak, baina %60 birziklatuta 173.929 tona errefus sortuko lirateke, eta %70 birziklatuta 155.171 tona errefus. 2008an egin ziren aurreikuspenekin alderatuz, errefus kantitateak behera egingo du. Orduan 2045ean 206.517 tona errefus sortuko zirela aurreikusi zen, oraingo aurreikuspenak baino 43.000 tona gehiago.

Azterketa honen arabera, %23,5

murriztuko da errauste plantara joango den errefus kantitatea eta horregatik eraikiko den erraustegi berriak %30 gutxiagoko ahalmena izango du. Ingurumen diputatuaren arabera, bi labe izango ditu erraustegi berriak, bakoitza 100.000 tona errefus erretzeko gaitasunarekin. Beraz egin nahi den erraustegiak 200.000 tona erretzeko ahalmena izango du, aurreikusten errefus kantitatea baino handiagoa. 2008an aurreikusi zen erraustegia 260.000 tonarentzat zen.

Aldundiak kontatu ez duena da IBH ingenieritza-aholukaritzak, erraustegia egiteko ardura zuenak, aurreko agintaldian prognosi bat egin zuela hondakinen sorreraren eboluzioarekin. Txosten horren arabera, 2020an 360.000 tona hondakin sortuko dira Gipuzkoan. Hauetatik %80 birziklatuko balitz, 288.000 tona, errefusa 80.000-120.000 tona inguru izango litzateke. TMB plantak eraikiz gehienez 80.000 tona erretzeko ahalmena lukeen erraustegi bat nahikoa izango litzatekeela ondorioztatzen du.

Txosten honetan agertzen den beste datu interesgarri bat: Gipuzkoako Hondakin Planak 500.000 tona hondakin sortzea aurreikusten zuen 2010erako, eta 406.000

tona sortu ziren. Aurreikuspenak egiten dituztenak ez dituzte ongi egiten, edo puztu egiten dira erraustegia eraikitzeko argudioak izateko.

Txosten hau ez da publiko egin, kasualitatez topatu da. Zubietako proiektuko arduraduna izan zen batek ordenagailu batetik 70.000 dokumentu ezabatu omen zituen eta berreskuratu ahal izan direnen artean zegoen IBHren prognosi hau. Bi txostenen artean ezberdintasun handiak agertzen dira, baina noski, Aldundiak erraustegia eraikitzeko eta ahalik eta handiena egiteko argudioak behar dituzenez bere neurria egindakoa aurkeztu du.

2. Olaztiko zementeran ezingo dute hondakinik erre

Nafarroako Gobernuak bertan behera utzi du Portland Valderrivas SA-k Olaztin duen zementu fabrika "erregai alternatiboen balorizazioa" ahalbideratzen zuen Udalerrizgandiko Eragina duen Proiektu Sektoriala (gazteleraz PSIS). Hau da, Portlandek ez du jada Olaztiko zementu fabrika hondakinak erretzeko baimenik.

PSIS hau 2013ko urtarrilean onartu zen. Onartutako proiektuak Olaztiko Portland zementu fabrika zementuaren

ekoizpen prozesuan erregai alternatibo gisa hondakin ez arriskutsuak energetikoki balorizatzeko beharrezkoak ziren instalazioak definitzen zituen. Baina proiektu hau gauzatzeko beharrezko pausorik ez da eman eta proiektuan aurreikusten ziren epeak ez dira bete.

Urte batzuk daramazkigu gure inguruan egiten diren hondakinen kudeaketa ezberdinak aztertzen, baita Nafarroan ere. Nafarroako Gobernuak eginiko Hondakinen Kudeaketarako Planak (PIGRN) inoiz ez dira erraustegiaren alde edo kontra azaldu, ez dira argiak izan beraien intentzioekiko. Badirudi Europako Hondakinen Zuzentarauak ezartzen duen hierarkia aplikatu nahi izan dela, baina hartutako neurriak ez dira koherenteak izan. Prebentzioa, berrerabilera eta birziklapena ez dira zalantzan jartzen baina hauetarako harturiko neurriak ez dira onenak izan helburuak betetzeko. Balorizazioa eta eliminazioari dagokionean, hondakinen hierarkiako azken mailak, ez dira inoiz argi aipatu PIGRNeen, tratamendu hauen balorazioak egiten dira Nafarroan zer egingo den argitu gabe. Bitartean, beste bide batzuk erabiliz, 2013an Olaztiko zementu fabrika hondakinak erretzeko baimena eman zitzaion Portland enpresari, isilpeko erraustegi bati

bidea libre utziz.

Hain iluna izan zen prozesua, auzitegiek bertan behera utzi zuela 2010-2017 epealdiarako 2013an onartu zen PIGRNa, eta ondoren, 2014an Nafarroako Gobernuak berak atzera bota zuen 2014an eginiko PIGRN, irregulartasunak zeudela salatzen genuen eragile askori arrazoia emanaz. PSISa baliogabetuz zementu fabrikari hondakinak balorizatzea ere bertan behera geratzen da.

Nafarroako hondakinen kudeaketa birplanteatzeko ordua da. PIGRn gabe eta balorizaziorako baimenik gabe, zero zabor helburura zuzenduriko hondakinen kudeaketa planteatzeko momentua da. Zero zabor helburua betetzeko neurriak hartuz eta behingoz hondakinen balorizazioa eta errausketa baztertuz.

3. Mugikortasun iraunkorra bultzatzeko proposamena Nafarroako Parlamentuan

La Fundación Sustrai Erakuntza Fundazioak Nafarroako parlamentuan garraioari buruzko ponentzia bat sortzea proposatu du Nafarroan garraioaren sektorea sakonki aztertzeko.

Sustrai Erakuntzak ongi azaldu duen bezala, azterketa honen beharra presazkoa

da, are gehiago klima aldaketa errealitate gero eta hurbilagoa denean eta Nafarroako Gobernuak Parisko COP21ean berotegi efektuko gasak 2050erako %80 murriztera konprometitu denean. Helburu hau lortzeko neurrien artean mugikortasun iraunkorra proposatu dute.

Ponentzia honen sorrera eskatzerakoan, Sustrai Erakuntzak gogorarazi du Parlamentuak gobernuari eskatu berri diola kontzesio berriak lehiaketara ateratzea, eta herrien arteko garraioa aztertu eta planifikatzea. Badirudi gobernuak prest dagoela trenbideko garraioa aztertzeko. Nafarroako sarea eta Euskal Y sarearen lotura, Iruñerriko saihezbidea eta Etxabakoitzeko tren geltoki berria aztertu nahi dituzte. Castejon eta Villafranca arteko AHTren zatia eginik dagoen arren, errealitatea da momentuz ez duela aurrera egiten. Intentzio hain nahasiak ikusita, gerta liteke obra ezberdinak egitea argi izan gabe Nafarroak izango duen garraio eredua.

Horregatik, Nafarroak behar duen garraio eredua aztertzea oso garrantzitsua da. ELA bat dator Sustrai Erakuntzarekin azterketaren beharrean eta uste dugu ponentzia honek lagundu dezakeela herritarren beharrei erantzuneko dien

mugikortasun iraunkorra izateko jarraitu beharreko ereduak zein izan behar den hausnartzen. Beti defendatu dugu mugikortasun iraunkorrak honako ezaugarri hauek izan behar dituela:

- trenbide sarean oinarrituriko mugikortasuna bultzatu. Trena da energetikoki eraginkorrena den garraiobidea, elektrizitatearekin funtzionatzen du eta elektrizitatea da %100 berriztagarria izan daitekeen energia iturri bakarra.
- Herriak eta eskualdeak elkartuko dituen trenbide sare soziala lehenetsi, eta ez elitista izango den sarea, hiriburu handietan bakarrik geratuko dena herritar gehienok albo batera utziko gaituena.
- Daukagun sarea berritzea eta zerbitzuak areagotzearen alde egitea.
- Merkantzien garraioa trenbide sarearen bitartez egitea bultzatzea.
- Errepide sarea ez lehenestea autopista eta errepide berriak eraikiz, gehienak errentagarritasun sozialaren azterketarik gabe.

Mugikortasuna politika sozialen zati garrantzitsu bat da, sare elitistak lehenesten badira herriak eta eskualdeak albo batera utziz, herritarron zati handi bat baztertu egiten baita eta desberdintasunak areagotu

egiten dira.

4. "Austeritatearen kontra eta justizia klimatikoaren aldeko borroka nola lotu?" **(Asbjørn Wahl)**

ELAK COP21aren inguruan eginiko balorazioa aurreko buletinean azaldu genuen. Oraingoan, Asbjørn Wahl, ITFko klima aldaketari buruzko lantaldearen buruak eginiko hausnarketa dakarkigu:

"Gizateriak egun hainbat krisiri egin behar dio aurre, larriak eta desafio handiak jartzen dizkietenak: ekonomikoa, soziala, politikoa, elikagaiena, eta azkenik -aurrekoak bezain garrantzitsua den arren- klimaren krisia, planeta honetan milioka pertsonaren biziraupena bera mehatxupean jartzen duena. Krision jatorrian antzeko zergatiak daude, eta gure sistema ekonomikoaren erdigunearekin dute zerikusia. Sortutako interes indartsuak daude tartean. Horregatik, interes kontrajarrien arteko borroka bat dugu hau. Mundu guztian jendea antolatzen eta borrokatzen ari da krisiaren ondorioen aurka. Sindikatuak borroka askotan oso inplikaturik daude, batia beste mugimendu asko ere; hauetako batzuk arlo batean dihardute, eta

beste batzuk, berriz, mugimendu sozial zabalagoak dira. Gero eta argiago, gure gizarte-eredua, gure ekoizteko eta kontsumitzeko modua, zalantzan jartzen ari da. Krisi hauetatik irteteko sistema aldatu beharra dago, eta hau lortzeko ezinbestekoa da gizarteko botereen arteko oreka zeharo desberdina. Horrek helburu bat definitzen digu, mugimendu eta borroka bateratzea, batik batik austeritatearen aurkako borroka eta klima aldaketaren ingurukoa. Hau izango da aztertuko dudana gaia.

COP prozesuaren porrota

Gobernuak hogeitiki urtetik gora daramate negoziatzen (gutxi gorabehera 1992an Rion izan zen Goi-Bileratik hona) klimaren krisitik salba gaitzaketen erabakiak hitzartze aldera. Alabaina, hogeitiki urte luzeotan ez da behar genuena, hots, berotegi efektuko gasen (BEG) murrizketa, gertatu, kontrakoa baizik. Isuriak asko gehitu dira, %60tik gora 1992tik aurrera. Garraioaren isuriak %120 hazi dira azken 30 urteotan, eta oraindik ere mundu guztian zehar gora egin dute, ekonomiako beste sektore batzutan egindako murrizketak baino azkarrago gainera.

Berotze globalak izango dituen ondorio katastrofikoak kontutan izanik, zer

dela eta ezin izan dituzte gure gobernuak BEG isuriak gutxitzeko hartu beharreko erabakiak adostu, egingarri eta errealistak izanagatik ere? Ez da izango irtenbiderik ez dagoelako. Klimaren krisia ekidin daiteke. Badugu horretarako behar den jakintza eta teknologia. Beste zerbait falta da, berotze globala geldiarazteko neurriak gauzatzeko behar den botere sozial, politiko eta ekonomikoa. Bestela adierazita, botere auzi bat da.

Haatik, berotze globala geldiarazteko botere sozial, politiko eta ekonomiko hori ez da agintean dauden eta petrolio korporazio eta finantza handiak kontrolpean dituzten elite ekonomiko eta politikoetatik etorriko. Sindikatu, gizarte-mugimendu, talde ekologista eta bestelako eragileek behetik eragindako presio gogorra da klimaren katastrofetik salba gaitzakeen erremedio bakarra.

Interesen norgehiagoka

Sortutako interesetaz ari gara, eta munduko korporaziorik boteretsuenak ditugu aurrez aurre; hauek beren interesen esanetara politiko neoliberalen armada dute. Munduko 10 enpresa handienetatik 7 petrolio industrian daude. Enpresa hauek duten botere guztia ari dira baliatzen beren interes

ekonomikoen kaltetarako izan litekeen politikak saihesteko. Botere ekonomiko eta politiko izugarria dute. Politikoak salgai daudenean erosi egiten dituzte. Gobernuak edo erregimenek beren botereari aurre eginez gero, enpresa hauek paretik kentzen dituzte. Etab.

Aspaldi honetan bizi ditugun krisi ekonomiko, sozial eta politikoen efektuak ere interesekin lotutako beste lehia bat dira; ez da zaila interes desberdinak identifikatzea. Mundu guztiko langileek krisiaren aurkako borrokan dihardute: enpleguaren alde, lanpostu eta soldata duinak izateko, gizarte-babesaren alde, langabeziaren kontra, beren komunitateak hobetzeko, beren eta senideen bizimodua defenditzeko... Krisi hauetan ezarritako politika asko austeritate politikak izan dira. Austeritate politikak ez dira, batzuk esaten duten moduan, "gehiegi puztutako zerbitzu publikoetan beharrezko diren murrizketak", ezta "langileen soldatak lehiakor izan daitezen egindako doikuntza" ere. Austeritate politikaren oinarria klase-borroka da; honelako politikak ongizate-estatua suntsitzeko, ondasun eta zerbitzu publikoak pribatizatzeke eta mugimendu sindikala azpiratzeko ezartzen dira. Azken helburua da

inbertsioaren etekina hobetzea. Hau da mundua gidatzen duen klase arteko gerraren lerro nagusia.

Krisi sistemikoak

Klima aldaketa edo hondamendiaren aurkako borroka ez da mugimendu sindikalak bere gain hartu behar duen beste borroka bat gehiago, austeritatearen aurka egiten denaren gainean egin beharrekoa. Aitzitik, borroka horren beraren zati bat da, eta gero eta areago izango da. Klima aldaketa gelditzen ez bada, edota 1,5-2,0 gradu zentigradura mugatu ezean (hau gure esku dago azkar eta kementsu ekinez gero), lanpostuak akabatuko dituen lehen arrazoi bilakatuko da. Komunitateak suntsituko ditu, baita milioika lanpostu ere, eta egundoko gainbehera soziala eragingo du. Aberastasuna areago birbanatuko du behetik gora, pobrezia zeharo zabalduko du eta maila ezezaguneko migrazio-krisiak ekarriko ditu. Horrenbestez, klima aldaketa suntsigarri bat ekiditeko borroka beste baten atala dugu, nahi dugun gizarte mota lortzeko interes-klaseetan oinarritutako borrokarena.

Krisi ekonomikoa zein klimarena krisi sistemikoak dira. Bien erroak sistema ekonomiko berean dautza. Sistema honen helburua etekinak lortzea da, ez balio

erabilgarriak. Sistema honentzat ezinbestekoa da hazkunde ekonomikoa (hazten ez den kapitalismoa krisian dago). Langileak esplotatu eta baliabide naturalak gehiegi ustiatzen dituena. Krisiz jositako sistema ekonomiko bat da, eta behin eta berriz sortzen ditu langabezia masiboa, pobrezia eta miseria. Orain lurra bera ere datozen belaunaldiak bizitzeko moduko leku gisa ere suntsitzekotan da.

Jabego publikoa eta kontrol demokratikoa

Hau geldiarazteko sarri entzun dugu egunotan lehenbailehen ekin behar diogula, eta indarrez. Berotze globalean atzera egitea ezinezko egingo lukeen 2 gradutara ia iritsi gara. COP prozesuaren hogeitortan ikusi dugu petrolio korporazio handiek, finantza-erakundeek, gobernu neoliberalek eta merkatuaren indarrek ezin izan dituztela arazo hauek konpondu. Ezta krisi ekonomiko sozialak ere. Kontrara, beren botere guztia mobilizatzen ari dira etekinak lortzeko lehia itsua mugatuko lukeen edozer ekiditeko. Ondorioak, austeritate areagotua eta berotegi-efektuko gas isuri handiagoak.

Beraz, erronka hauei erantzuteko modu bakarra korporazio eta erakunde boteretsu hauek kontrol demokratikopean jartzea da. Horretarako izugarritzko indar

sozial eta politikoa mobilizatu behar da. Bakarrik egingo duenik ez dago: ez mugimendu sindikala, ez mugimendu ekologista, ez bestelako gizarte-mugimendu sektorialak... Inoiz baino areago gizarte-mugimenduen arteko aliantza zabalak eratu behar ditugu, borroka honetan norabidea aldatzekotan bagara bederen.

Borroka soziala eta klimatikoa bateratu

Mugimendu sindikalak borroka honetan funtsezko eginkizuna izan beharko du, gizartean duen kokapen estrategikoa medio. Halere, zintzo juzkatuz gero, aitortu beharra dugu orain arte mugimendu sindikalak krision aurka ez duela nahikoa ardura bere gain hartu. Sindikatuak mundu guztian defentsiban daude. Horretarako arrazoiak badira, baina gaur ez ditut xehetasun handiz aztertuko (halere, uste dut bilera hauetan, baita sindikatuek antolatutako batzarretan ere gehiago jorratu behar zela gai garrantzitsu hau). Hori ere lagungarri izango zatekeen "bidezko trantsizioa" delako horretatik haratago joateko, eta hori lortzeko estrategiei gehiago erreparatzeko.

Dena dela, gaur aurrean ditugun eginbeharrak nire ustez argi asko agertzen dira. Borroka soziala klima aldaketaren borrokarekin bateratu behar dugu: bere

erroan dauden zergatiak, zein horiei aurre egiteko neurriak berdinak dira. Aliantza zabalak eratu behar ditugu, gizarteko botere-oreka aldarazteko indar nahikoa lortze aldera. Gure ekonomiako sektore estrategikoak kontrol demokratikopean izango diren jabego publiko bihurtzea izango da borroka horren oinarritzko atal bat. Klima aldaketaren borrokan lehen lerroan dago energia-sektorea. CO2 isuriak guztiz lotuta daude energiarekin; sektore hau ez bada kontrol demokratikopean jartzen ez dago beharrezko eraldatzeak lortzeko modurik, ez behar bezain sakon eta azkar.

Behetik eragindako presio gero eta handiagoa!

Austeritatearen kontrako borroka agerian uzten du jabego publikoaren eta beste arlo batzuetako kontrol demokratikoaren beharra; zerbitzu publikoen defentsan, baita pribatizatutako ondasun eta zerbitzu publikoak berriro kontrol demokratikopean jartzeko borrokan ere. Klima aldaketaren eta

austeritatearen aurkako borroka ezin dira abstraktuegiak eta zabalegiak izan. Borroka hauek arazo konkretuei egin behar diete aurre eta langileen eta pertsonen eguneroko bizimoduan irtenbideak eskaini. Borroka bateratu eta zabaldu egin behar ditugu; hala erakusten digute esperientziek. Sindikatu gehienak ari dira gaur nolabaiteko austeritatearen aurkako borrokaren batean. Halaber, gero eta sindikatu gehiago ari da benetan atxikitzen klima aldaketaren kontrako kanpainari. Zenbait ekimen, esaterako Demokrazia Energetikoaren aldeko Sindikatuak (TUED) eta Enplegu Klimatikoaren sare Globala, aurrerapauso handiak izan dira. Orain borrokarako prest dauden koalizio handiak behar ditugu, agenda erradikalagoa, militantzia handiagoa eta, horrekin batera, behetik eragindako presio gero eta handiagoa.”